

Noaia !!

www.noaia.com




Jose Ramon Soroiz,
larunbatean Sutegin

te egokitua,
berogailu autonomo
10 431 999.
te dituen Renault Megane Coupe
kat salgai. 637 760 852.

OSTUAK
eskaintzak
tean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goi-
zez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta
etxeko lanak egiteko emakume euskaldun
baten bila galduko izatea baloratuko da.
Ordutegian flexibilitatea
3785.
-Neska e...
ume...
bait...
- LH...
em...
ika...
zerre...
pasa...
Ast...
teb...
na...
U...
bila gabiltza. 9433

669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxe...
eta umeak zein pertsona helduak
618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona heldual
zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaini
tzen da. 620 646 769.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak e...
teko, pertsona helduak zein haurrak zain...
ko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo
tsona helduak zaintzeko. Telefono zen...
676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintz...
etxekolanak egiteko. Egun osoko dis...
Portalak eta eskaileak garbitzeko
eskaintzen da. Esperientzia horrela...
690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein mo...
oak montatzen dituen profesion...
da. Telefono zenbakia: 943555
660.
- Etxeko lanak egin, pertsona
edo jaretxe batean lan egiteko
669 335.
- Neska bat eskaintzen da et...
zein pertsona
999 332.
- Etxeko lanak egin, pertsona



Martxoak 8, Emakumeen Eguna

Berdintasuna, denon ardura



FUNERARIA GONZALEZ

Tel: 943.36.21.63
608.16.77.92 eta 660.38.86.52



USURBILGO EHORZTETXEA

Zerbitzu azkarra eta etengabea 24H.
Belatoki guztietan zerbitzuak.
Lekualdaketak, hilarriak, eskelak...
Ospitale zentru eta egoitzetan ere.
Seguru konpani guztiak

Muna lurra Kalea 8

www.noaua.com
usurbildarron zerbitzura



EZKERRA OIHUKATU!



eusko
alkartasuna

herriarenahotsa

euskoalkartasuna.org

Albiste iruditan !!

Santixabelak prestatzen hasteko garaia iritsi da

Lau hilabete falta dira oraindik. Baina jaiak antolatzen hasi beharra dago. Kultura Batzordeak jakinarazi duenez, martxoaren 12an asteazkena bilduko da lehen aldiz Santixabeletako Jai Batzordea. Udaletxean egingo da bilera eta arratsaldeko 19:00etan hasiko da. Bilera irekia da. Beraz, herritarrek bertan partehartzeko aukera dute.

Jaietan ekitaldiren bat antolatu nahi duenak, proposamenak egiteko aukera ederra dauka datorren astean egingo den bileran: martxoaren 12an asteazkena, 19:00etan udaletxean.



MARTXOAREN 12AN BILDUKO DA LEHEN ALDIZ JAI BATZORDEA.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordenberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA. NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

LURPERATZEAK AURRERANTZEAN GOIZEZ **5. OR.**

DOLORES ERRASTI PALA JOKALARIA **8. OR.**

BERTSO-AFARIA ANDATZPE ELKARTEAN **9. OR.**

SOINURBIL MUSIKA ZIKLOA **10. OR.**

LARUNBATEAN ANTZERKIA SUTEGIN **11. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.com

Papera jartzea eta
Pinturak orokorrean

FERNANDO
PINTURAK

943 366 019
943 363 460

Kale Nagusia 1 · USURBIL

ZUBIAURRENEA 4 · USURBIL

ileapaindegia

943361951

mistoa

LAUKOTE

OKINDEGIA
KAFETEGIA

Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal). 943 36 09 80



IMANOL UBEDA

Zarata, ezer herririk ez esateko

Bukatzeaz da hauteskunde kanpaina. Akabo egi handiz jantzitako gezur txikiak, kontrario gutxiesteko saiakerak eta etorkizun hobe baterako promesa denak. Zaila ez, ezinezkoa izan da zarata mediatikotik aparte bizitzea. Zarata, eta erabatekoa, ezer herririk ez esateko.

Antzeppen kaxkarra egin duten arren, bikain atera zaie jokaldia PP eta PSOeri. Beste aukerarik ez dela irudikatzea lortu dute, gainontzeko alderdiak bide bazterrean utziz. Okerrena, hedabide publikoen onespenerekin egin dutela.

Urruti begiratu gabe, antzeko jokoa egin dute bertako hedabide batzuk. Aurreko legegaldian alderdi politikoek izan zuten ordezkartzan oinarrituz, hainbat proposamen eztabaidatik at utzi dituzte. Beraz, alderdien legeaz ez ezik, bestelako "arauetaz" ere baliatzeko arazorik ez dute izan euren burua publikotzat duten hainbat hedabidek.

Lehengo asteko "Kalakan" saiora (ETB1), esate baterako, soilik EAJ-PNV, PSE-EE, PP, EA eta IU-EBren ordezkariak gonbidatu zituzten. Aralarrek eta EAE-

ANVk ordezkatzeko dituzten sentsibilitateak eztabaidatik at utzi zituzten. Kasualitatez, Eusko Jaurlaritzako kargu politiko batek Egunkaria eta Berriaren pluraltasuna eta independentzia zalantzan jarri duen garaian.

Hango eta hemengo eztabaida horietan –eta pluraltasuna erabatekoa izan denean ere bai–, kuriosoa izan da politikoek erakutsi duten abilezia. Kontrariotik bereiztearren, txuria beltza dela esateko kapaza izango litzateke bat baino gehiago.

Eta niri, zalantza egiteko eskubidearen defendatzaile izanik, kategoriko azaltzen diren horiek atzerakoa ematen didate, gero eta gehiago.

Ez dakit zer den alderdi bateko kide izatea, ez dut sekula kargurik bete, ez naiz inoiz herritarren ordezkari politikoa izan. Eta eskerrak. Herritarrengatik, bereziki. Batzutan, nire burua ordezkatzeko adore gutxirekin jaikitzen bainaiz. Eta alderdi politikoengatik ere, eskerrak. Alderdiaren diziplina delakoaren izenean, laster batean bidaliko nindukete *grupo mixtura*. Lastima Labordeta jubilatuta den, bestela igoal...

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !!

Abstentzioa dut xede

Martxoak 9 hauteskunde espainotzak bere "programa" azaltzeko garaia. Kanpaina daudenez, hitz ponpoxo eta leunak esatekoa, eta nola ez, esanahi handikoak ere bai. Esaldi batean biltzeko, hitz jario etengabea daukagu bazter guztietan, eta behin baino gehiagotan oroitu naiz "hitzak dira hitzak haizeak farrez daramazkinak" dioen abestiaz.

Nik berriz, hiru hitzen "eskubidea, demokrazia, askatasuna" inguruan egin nahi nuke gogoeta eta lerro pare bat idatzi.

Alderdi guztietako burukideen aldetik etengabe entzuten ditugun hitzak dira. Kanpaina daudenez, herriko biztanle xumea bereganatu nahian dabilta komunikabide guztietan egun batean bai eta bestean ere bai. Hori bai, legea betetzen

dutenak bakarrik dute eskubidea. Behin baino gehiagotan entzun dugu, Hitler eta Francok ere demokratikoki irabazten omen zituztela hauteskundeak. Orduan ere legearen barruan zeudenak bakarrik omen ziren eskubidea zutenak. Besteak, ez zuten ezta eskubiderik ere. Orain ere ez al da arrazoi berdina jartzen? Garai ilun hauekin, zer aldatu da? Orduan, alderdi askok ez zuten aurkezteko eskubiderik. Orain berriz, EHAK eta EAE-ANV alderdiek ez dute aurkezteko eskubiderik. Lau urte lehenago berdin gertatu zitzaion Batasunari. Eta hauteskunde demokratikoak izan direla esaten entzungo ditugu hemendik egun gutxira. Berdin izango da alderdi espainola eta erregionalista izan. Lege faxista horren pean aurkeztu diren alderdi guztiek, emaitzak onartu egingo

dituztela ikusiko dugu. Ez da gauza berria. Lehen ere berdin jokatu zuten hango eta hemengo direla dioten alderdi horiek.

Nik horrenbeste basakeriren aurrean abstentzioa dut xede. Horrenbeste errepresioaren aurrean abstentzioa dut xede. Euskal Herriaren askatasunaren alde nagoelako hauteskunde hauetan abstenitu egingo naiz eta ez dut bozkatuko. Nik nahi dudana alderdiari bozkatzea galarazi egiten zaidalako, benetako demokraziaren izenean abstentzioa bultzatuko dut hauteskunde hauetan eta ez naiz bozkatzera joango.

Eskubidearen alde, demokraziaren alde, eta askatasunaren alde nagoelako, martxoaren 9an abstentzioa dut xede.

Orkatz

** Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)*

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: martxoak 14. Idatzia ekartzeko azken eguna: martxoak 10.

Aurrerantzean, gorpuen lurperatzeak goizez egingo dira

Herritar bat hil eta azken aldiz agurtu ostean lurperatu ohi da gorpua Usurbilen. Hau da, arratsalde edota iluntzetan. Hemendik aurrera, ordea, orain arteko ohiturak zeharo aldatu beharko dira.

Martxoaren 3tik jada indarrean dagoen neurri berriaren arabera, gorpua goizez lurperatuko dira, 9:00-13:30 artean. Bai Usurbilgo zein Aginagako hilerrietan.

LURPERATZEAK, GOIZEZ

“Gorpuen lurperatzeak goizez egingo dira, 9:00-13:30 artean”

Udaletik gogorarazten dutenez, orain arte zutik dauden nitxoetan sartu izan dira hilkutxak. Baina hilerriko nitxo guztiak beteta daudenez,

lurreko zuloetan hilobiratzen hasita daude jada. Lurperatze modu horrek dakartzan arriskuak kontuan hartuta erabaki dute goizeko ordutegia martxan jartzea.

Hain zuzen, gaia aztertzeke Segurtasun Inspektzio txosten bat egitea agindu zuen Udalak. Bertan jakinarazten denez, zuloetan lurperatzeak segurtasun neurri zorrotzak hartu beharra dakar, lan horiek egiteko dauden zailtasunengatik. Zuloan ibiltzeko argiteria ona, baranda eta eskailera finkoak behar dira. Lanek lau langileren eta harriak mugitzeko makinaren beharra ere eskatzen dute.

Tanatorioa, erabilgarri

Aipatu bezala, bermatutako zerbitzua eskaini asmoz, lurperatzeak goizez egitea hobetsi da. Udal iturriek adierazi bezala, “egoera berrira moldatzeko guztion ahalegina eskatzen dugu”. Hartutako neurriak denon onerako direla gaineratzen dute.



2005 URTEAN ZABALDU ZEN USURBILGO TANATORIO ZERBITZUA.

Edozein kasutan, hildakoaren azken agurra gorpuekin egitea beharrezkotzat jotzen duenari konponbidea bilatu zaio. Elizkizunaren ostean, gorpua hilerriko tanatorioan jasotzeko aukera izango da, 99 euroren truke. Eta hildakoaren gorpua hurrengo eguneko eguerdian lurperatuko litzateke.

Ika-mika !

Denok dakigun bezala hauteskunde orokorrak gainean ditugu. Zapatero eta Raxoiren mitin zalapartatsu horren ondoren, badirudi Espainia aldean bi gizontxo hauek direla protagonista bakarrak. Gizarte honen ongizatea ekarriko digutenak. Zapaterok, orain arte egin duenari ezinbesteko jarraipena emanaz. Raxoik, besteak egin dituen kalteak zuzenduz.

Euskal Herriko autonomi erkidegoan audientzia oso txikia izan zuen ditxosozko debate honek. Ez gintuen txoratu, ezta erakarri ere. Esango nuke audientzi zenbakiak ikusita bi alderdi horien boto-emailek jarraitu zutela gehien. Gainontzeko... Nik hasiera ikusi nuen. Baina lo hartu nuen.

Dena den euskaldunok asko dugu esateko. Eta horregatik, lehen ere Madrilen lan handi bat egin dugunez egiten jarraitu nahi dugu: euskararen alde; gizarte politi-

ka hobeen alde, ume jaioberrien familiek eduki duten 2.500 euroko dirulaguntza handitu dadin; hirugarren adinekoei ematen zaizkien zerbitzuak hobetzearen alde; eta beste hobekuntza askoren artean euskal gatazka delakoa konpontzearen alde; horretarako orduan eta ahots gehiago izan, orduan eta presio handiagoa egingo diogu Espainiako gobernuari Euskal Herriaren arazoa konpondu dadin.

Hori dena eta askoz gehiago posible izateko botoa ematera joateko eskatu nahi dizuegu. Abstentzioa eskatu eta jendearen gan beldurra sortu nahi dutenei ezetz esateko! Botoa emateko eskubidea, adierazpen askatasuna, presioaren bidez urratzen dutenei ezetz esateko! Eta hori modu paketsu eta zibilizatuan.

Guk egun lasaia espero dugu. Orain dela 8 urte ere, ezker abertzaleak abstentzioa eskatu zuenean egun lasaia izan zen.

Beraz, botoa ematera bultzatu nahi zai-

tuztegu! Guk EA-rentzat eskatzen dugu botoa noski. Baina ezberdintasun eta ideologia guztien gainetik joan zaitezte!!

Bukatzeko abertzaleoi anekdota txiki bat. Martxoaren 9an Euskal Herriko 7 probintzietan emango dugu euskaldunok gure bozka. Iparraldekoek udal eta kantonamendu hauteskundeetan, Hegoaldeko hauteskunde orokorretan. Kointzidentzi hutsa izan arren, sinbolikoki bada ere aukera ederra dugu gure nazioaren errebindikazioa egiteko. Horretarako euskaldun guztiok Frantziari eta Espainiari nazio bat garela eta hala sentitzen dugula esateko aukera dugu. Nola ulertu ezker abertzaleak iparraldean botoa eskatzea eta hemen abstentzioa? Ez ote da hainbestetan aipatu dutena egiteko aukera paregabea, hau da, herri gisa erantzun bat ematekoa?

Usurbildarro, eman dezagun botoa!!!

Jokin Zubiaur, EAko kidea

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Zuhaitzak desagertzen



Neguko eguraldi txarraren zain darabagu denbora dexente, baina zerura begiratu eta lainorik ez, oskarbi, eguzkia gogoz berotasuna ematen ikusten dugu, hotza eta euriaren arrastorik gabe. Laister ordea, udaberrian sartuko gara ofizialki baina badirudi ez dela oso ezberdina izango.

Neguan bada behintzat aldatzen ez den zerbait, oraingoz behintzat: zuhaitz gehienak biluzik ageri zaizkigu, hostorik gabe, tristuraren islada bihurtzen dira, eta Atxegalden ere baditugu horrelako mordoa. Hain zuzen Beko kalean nik gogoratzen dudala behintzat, Alkorta autozerbitzuaren alboan, eskaileren ondoan zegoen zuhaitza Atxegalde jaio zenetik zegoen hor. Agian eguraldiari erreparatuz neguan geundela jakitea zaila bazen, zuhaitz honen biluziak argi uzten zuen baietz, handia eta adar luzekoa baitzen.

Baina duela gutxi, zerbait ezberdina nabaritu genuen auzotarrok, argitasun gehiago zegoela zirudien, etxe arteko espazioa ere zabaldu zela,...baina garrantzitsuena, egunero bizitza guztian zehar hor zegoena falta zela ohartu ginen... Zuhaitza enborretik moztu eta kendu egin baitzuten.



Orain, egun gutxi pasa badira ere, zaila egiten zait oroitzea nolakoa zen zuhaitz hura. Bere azken egunak biluzik igaro baitzituen udaberria noiz iritsi zain, berriz ere bere edertasuna denoi erakusteko. Baina ez dugu berriro horrela ikusiko, memorian gordeta geratuko da.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Udari begira



Negurik igaro gabe, udaberrian sartzeaz gaude. Aurten ez dugu ez hotzik pasa, ez ditugu txamarra handiak, eskularru eta bufandak gehiegitan armairutik atera, behin ere ez, ez esatearren. Zelaietan loreak hasi dira bere kolorea zabaltzen eta neguko azken egun hauek, niri behintzat oso arraroak ari zaizkit gertatzen. Nik uste denok hartzen ditugula gustura eguraldi epel hauek, baina ez da normala, klima aldatzen ari ote zaigu?

Burura etortzen zait uda ere atzetik segika laster etorriko dela eta udan, nola ez, auzoko festak. Oraindik urruti daudela dirudien arren, konturatzerako etortzen dira abuztuko lehen egunak. Eta festak nahi baditugu behintzat, antolatu beharrak daude. Egia esan, nolabaiteko nagitasuna ere sortzen du aurrera begira jarri eta antolaketa lanetan hasteak: egunak nola tokatzen diren ikusi, zer egin daitekeen pentsatu eta gauza txiki asko ondo lotu. Baina momentua iristen denean, denok gozatzen dugu auzoko festetaz, baita antolatzaileok ere.

Festen prestaketetan hastear gaudenez, txoko hau aprobetxatu nahi nuke Jai Batzordean parte hartu edo besterik gabe, ideien bat emateko gogoia duen edozeini gonbidapena luzatzeko. Badakizue nortzuk garen eta lasai gerturatu guregana, ateak zabalik dituzue eta!

KALEBERRI

IRATI PORTU

Udaberria

Aurtengo honetan udaberria oso goiz iritsi zaigu: temperatura goxoa, eguraldi polita eta zuhaitzak lorez beteta dagoeneko.

Baina ez dira zuhaitzak lorez beteta dauden bakarrak egun hauetan. Asteburu honetan bi data seinlatu izango ditugu: martxoaren 8, Emakumeen Eguna, eta martxoaren 9an, berriz, hauteskunde santu hauek izango ditugu. Egun hauetan alderdi desberdinetako jendearen ahoak lorez betetzen dira eta direnak eta ez direnak entzun behar izaten ditugu. Niri amorratorik handiena ematen didana kanpaina egiteko helburu soilarekin herriarentzat hunkigarriak eta benetan garrantzitsuak diren gaiak erabiltzea eta manipulatzeko da.

Adibide moduan, datak direla eta, emakumeen aurkako zapalketa aipatuko dut, baina ez dago asko pentsatu beharrik herrian bertan beste hiruzpalau adibide ateratzeko.

Hala ere, gure udaberri-negu honetan badaude benetako loreak eta nola ez, ekintza positiboak ere. Horra, adibidez, asteazken honetako hitzaldia edota larunbatean egingo den bertso afaria.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Pinudiak gutxitzen ari direla



Ez dakit beren borondatez edo agintariek behartuta, baina gaitz berri bat dela medio lurjabeak pinuak kentzen ari dira.

Ikusita dago berriz ere “insignis” pinua bakarrik aldatzeak ez daukala etorkizunik. Gaitz bat ez bada, bestea.

Lehendik ezaguna zen pinudiak atakatzeko “prozesionaria” harra, zuhaitzetan kabi zuri itsusi horiek egiten dituen. Agintariek abioiekin pozoia boteaz (“Dimilin” famatua) egin izan diote kontra har horri. Orain berriz azken urteotan azaldu dena “pinuaren kantzerra” deitua da: onddo bat da, “Fusarium Circinatum” izeneko, eta Diputazioa ahalegin berezia ari da egiten hori desagertarazteko. Horretarako, kutsatutako pinudi guz-

tiak bota arazi ditu.

Gaitz horiek asko ahultzen dute pinua, eta noizbait diru pixka bat ateratzekotan pinudia aldatu zuen lurjabea batere errentagarritasunik gabe geratzen da.

Pinu kontuak tristeak baldin badira, beste aldetik poz ematen du ikusteak lurjabe batzuk “insignisa” baztertu eta intxaurrak edo haritzak bezalako zuhaitzak aldatzera itzuli direla. Urte dexente beharko dituzte oraingo lanaren etekinak ikusteko (intxaurrak eta bestelako fruituak lehenago gozatu ahal izango dituzte, hori bai) baina naturak eta herritar guztiok eskertuko diegu beren jarrera.

Negu hau, hala ere, oso lehor joan da eta euri falta kezkatzeko gauza da. Ura emanez laguntzen ez bazaie, landatu berriak diren zuhaitz eta arbolak



itsatsiko ote dira? Udaberriarekin euria egingo duen esperantzan egon beharko dugu.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Hau da hau beteka



Bazter guztiak kartelez josita, buzoiak leporaino beteta guretzat hobereana zer den adierazten duten panfletoekin, egunkaria hartu eta hasi eta buka batek zer esan duen eta besteak zer erantzun duen, irratia piztu eta bata bestearekin marmarka ez bada, ahots goxoa jarri eta boto eske ari den norbait, telebista piztu eta debateak han eta debateak hemen... Hau da hau beteka!

Legealdia amaitzean dagoen honetan oposiziokoak kontu eske hasten dira esanez “zuk esan zenuen halako egingo zenuela eta ez duzu ezer egin” edo “esan zenuen ez zenuela egingo eta egin egin duzu”. Agintean daudenak berriz zeinen ondo egin dutenaren adierazpenak ematen hasten dira...

Lehenengo hauteskundeetako aurre-kanpainan egon gara, orain hauteskunde kanpainan gaude. Batzuentzat botila erdi bete dago eta hori sinestaz nahi digute, besteentzat berriz erdi hutsik dago. Kontua da nola batzuk zein besteak botila berataz hitz egiten ari direla. Ondoren hauteskunde etorriko dira eta gero hauteskunde ondorena izango dugu. Biharamuneko irakurketa: denek irabazi dute!!

Hainbat galdera egiten dizkiet nere buruari: hauteskundeak herriaren ahotsa badira, baina herriak esaten duena entzuteko eta onartzeko gai ez diren alderdiak baldin badaude, zertarako balio dute hauteskundeak?

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

Garraioa...

Ni Zubietako neska bat naiz, hamasei urtekoa. Udan hondartzara joateko etxetik oinez joan behar dut Usurbilera, eta ondoren Usurbiletik Donostiara autobusez. Etxetik autobus geltokira joateko 20 minutu behar ditut oinez, eta hamar minutu bizikletaz. Eta hori eguraldi ona egiten duenean.

Neguan lagunekin elkartzeko naizenean, batzutan bizikletaz joaten naiz, baina beste askotan gurasoek eramaten naute. Beti norbaitek mugitu behar izaten nau lagunak ikusi ahal izateko.

Autobus bat jartzen badute, euria ari duenean, iluntzean... aita edo ama molestatu gabe joan naiteke lagunak ikustera.

Baina arazoa da, ez dutela autobusa jartzen, ez zaielako errentagarria ateratzen.

Guk eskubidea daukagu garraio publiko bat izateko, nahiz eta beraiantzat errentagarria ez izan, edo beharbada autobus zerbitzurik izateko eskubiderik ez dugu izango, errentagarria ez delako?



“Emakumea Pilotari” txapelketako finala jokatuko du larunbat honetan Dolo Errastik

Azken hilabetean Aginagan Emakumea Pilotari, binakako pala txapelketa jokatu da. Hamabi bikoteek parte hartu dute ekimenean, tartean Dolo Errasti aginagarrik. Eta finalera ailegatu da Maite Redondo oriotarrarekin batera. Azken saioa bizia izango dela iragartzen du Errastik. Finaleko eguna berriz berezia, martxoaren 8a, Emakumeen Eguna. Hitzordua, 16:00etan Aginagan.

NOAUA! Pasa den asteburuko jardunaldiarekin pozik ezta?

Dolo Errasti. Urduri nengoen. Gainerakoan nahiko ondo joan ginen. Irabaztea espero genuen. 30-20 irabazi genien.

N. Alde handiz gainera?

D. E. Ez pentsa. Hasieran, hogeitatorita arte paretsu ibili ginen. Aldea geroa atera genien.

N. Larunbat honetan, final handia etxean bertan?

D. E. Zabala-Fernandezen aurka, azpeitiarra bata, Zumarragakoa bestea.

N. Animu aldetik nola zaudete, irabazteko aurreikuspenekin?

D. E. Ez dakit, urduri samar jartzen naiz eta. Irabazteko esperantza bai baina galtzeko ere ez fidatu. Gogor samarra izango da.

N. Finala, martxoaren 8an jokatuko duzue. Egun berezian?

D. E. Noski. Esanahi handiko egunean. Eta galduta baino irabazita, hobe izango da.

N. Txapelketa gehiagotan parte hartzeko ohiturarik ba al duzu?

D. E. Iaz hasi nintzen. Egunkarian nesken txapelketa zegoela irakurri nuen. Orain urte batzuk akordatu banintzen, askoz hobeto. Berandu hasi naiz, iaz urrian lehen txapelketa egin nuen. Akaso, datorren hilabetean Oartzungo txapelketan izena emango dugu.

N. Gustura beraz?

D. E. Bai. Giro oso ona dago gainera. Garrantzitsuena giroa da, horrek balio du. Giro txarra izanez gero, hobe etxean geratzea. Egoera horretan eta adin honetan izena emanda utzi egingo nuke.

N. Aginagan bertan entrenatzen duzue?

D. E. Astean behin. Behin entrenatuta, fondoa hartzeko ona litzateke korrika pixka bat egitea. Baina nik behintzat ez dut egiten.

N. Nola ikusten duzu emakumeen parte hartzea kirol txapelketatan?

D. E. Parte hartzea handia da. Oso animatua dago, neska mordo dago. Geroz eta gehiago hasten dira, nahiz gero agian, utzi. Hasi egin behar da, probatu. Entrenatu eta gustura arituz gero, segi.

N. Iaz hasi zinen jardunaldietan parte hartzen. Baina palan noiztik?

D. E. Hamasei urtetik daramat palan jokatzen. Anaiekin betidanik aritu izan naiz futboleant eta pilotan. Oso gustura.

N. Orduan, neska askorik ez zu beza kirol jardueratan?



AGINAGAN JOKATUKO DEN FINALA
GOGORRA IZANGO DELA
DIO DOLO ERRASTIK.

D. E. Ez. Anaiekin ibiltzen nintzen, beti mutilekin. Neskek ez zuten pilotan ibili nahi izaten. Futboleant ere gauza bera gertatzen zen.

Larunbatean, final handia

Emakumeen Egunean bukatuko da Aginagan jokatu den Emakumea Pilotari Txapelketa. Final handian izango dira Dolo Errasti aginagarria eta Maite Redondo oriotarra. Aurrez aurre, Zabala eta Fernandez jokalaria izango dituzte. 16:00etan hasiko da jardunaldia, baina final handiaren aurretik hirugarren eta laugarren postuak argitzeko partidak jokatuko dira. Martxoaren 8ko ekitaldira Emakumea Pilotarin parte hartu duten hamabi bikoteak gerturatuko dira. Sari banaketarekin eta lunch batekin osatuko da eguna.

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

CLIMATA-T

klimatizazio orokorra

☎ 687 858 390
climata_t@yahoo.es

JOSETXO IKATZETA

Iturgintza

TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Martxoaren 8ari lotuta, bi mozio onartu ditu udalbatzak

Doako abortu askea ziurtatzea, berdintasunaren alde jardun eta genero indarkeriaren aurka ekitea. Horiek dira pasa den otsailaren 26ko plenoan, Emakumearen Egunari begira aurkeztu ziren bi mozioek eskatzen dutena. Biak onartu ziren.

Emakumeen Eguna larunbat honetan, martxoak 8. Egun horri begira pasa den otsailaren 26ko plenoan bi mozio aurkeztu eta onartu zituen udalbatzak. EAE-ANV-k aurkeztu zuen idatzietako bat. Azken aldian, abortuak praktikatzeko dituzten kliniken eta emakumeen intimitatearen aurka izandako eraso faxistak salatu eta onartezintzat jotzen dituzte. Kaltetuei elkartasuna adierazten zaie eta haien eskubideak errespetatzeko eskatu. Abortu aske eta doakoa ziurtatzea ere galdegiten da aipatu testuan. Gogoratzen dutenez, abortuaren %2,9a besterik ez da egiten ospitale publikoetan. EAko zinegotziek mozioaren aurka bozkatu zuten, gainerakoek alde. Mozioa onartuta, idatzia osasun alorreko erakundeei helarazteko asmoa dago.

PSE-EEREN MOZIOA

“Genero indarkeria pairatzen duten emakumeak babestu behar ditu Udalak”

PSE-EE-ko zinegotziak aurkeztu zuen bigarrena. Genero indarkeriaren aurka eta emakume eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko borrokan, Udalak hartu beharreko zenbait konpromiso zehazten dira aipatu testuan: etxeko lanak partekatzea, emakumeek pairatzen dituzten enplegu arazoak konpondu, prebentzio eta kontzien-



OTSAILAREN 26KO OHIKO PLENOAN AZTERTU ZIREN EAE-ANVK BATETIK ETA PSE-EEK BESTETIK AURKEZTUTAKO BI MOZIOAK.

tziatze kanpainak bultzatu, edota genero indarkeria pairatzen duten emakumeak babestea. Berdintasuna eskuratze aldera, bideak zabaldu arren horiek denon artean jorratu behar direla aipatzen da. Hain zuzen, mozioak gogorarazten duenez, ema-

kumeen aurkako injustiziak eta berdintasunak alor pertsonaleko eta pribatuko kontutzat jotzen baitira. Aho batez onartu zen.

ARITZ GORRITI

Irazu, Lujanbio eta Elustondo, larunbatean egingo den bertso-afarian

Udaleko Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika Sailak bi ekitaldi antolatu ditu martxoaren 8ko Emakumeen Egunaren harira. Hilaren 5ean famili barruko berdintasuna jorratzen zuen hitzaldia eskaini zen Sutegin. Larunbat honetan berriz, Emakumeen Egunean oinarritutako bertso-afaria izango da Andatzpe elkartearen. Gaueko 21:30etan hasiko da ekitaldia eta bertan izango dira Jexux Mari Irazu, Nerea Elustondo eta Maialen Lujanbio bertsolariak.



BERTSO-AFARIRAKO TXARTEL DENAK BUKATU EGIN DIRA.

Martxan da Soinurbil Musika Zikloa

Aurreko igandean hasi zen Soinurbil Musika Zikloa. Aurtengoa, laugarren edizioa izango da. Ostiral honetan, Pasaia Musikal Big Band Taldea ari-tuko da Sutegin.

Pasaia Musikal Big Band taldea duela hamar urte osatu zen, Pasaia-ko Eskolako musika modernoaren ikas-gelan. Geroztik, hainbat musikalditan hartu du parte, hala nola, Torrelavegako (Kantabria) Musika Jaialdian eta Zumaiako Udako Musika Lehiaketan.

Sarrera doan

Hemezortzi kidez dago osatuta, eta jazz banden ohiko formazioa jarraitzen du: haizezko musika-tresnetan (saxofoiak, tronboiak, tronpetak) eta

instrumentu erritmikoetan (teklatuak, bateria, baxua eta kitarra) oinarritutako taldea da.

Sorreran, Eduardo Salvador Donostiako Musika Eskolako baxu-irakaslearen laguntza izan zuen Pasaia Musikal Big Band taldeak. Gaur egun, Fran Berrak zuzentzen du taldea.

Ostiral honetan, Sutegin ari-tuko dira, arratsaldeko 19:30ean.

Ostegun honetan, kontzertu pedagogikoa

Ostegun honetan, hilak 6, kontzertu pedagogikoaren txanda izango da. Zumarteko ikasleek bi saio eskainiko dizkiete Udarregiko ikasleei. Lehena, 14:45ean eta, bigarrena, 15:30ean. Biak Sutegin.



ZUMAIAKO UDAL MUSIKA
BANDAREKIN HASI ZEN IGANDEAN
SOINURBIL MUSIKA ZIKLOA.



ezkerra
berri
ezker
aberri
euskal boza Madrilén



Larunbatean, Jose Ramon Soroizen antzerkia Sutegin

Orain 13 urte taularatu zuten lehen aldiz katalanez “Sommer jaunaren istorioa” izeneko antzezlan. Orain, antzezlan hau euskaraz eskaintzen ari da Jose Ramon Soroiz aktorea, baka-rrizketa itxura duen saioan.

Lourdes Oñederra donostiar idazle-ak itzuli zuen liburua lehenik, eta segidan etorri zen lanaren euskarazko ego-kitzapena. Xicu Maso zuzendari katalanak zuzendu du, nahiz eta euskaraz jakin ez. “Harrigarria da ezagutzen ez duzun hizkuntza batean antzezlan bat zuzentzea, baina testua ongi ezagutzen nuenez, posible izan da”, adierazi zuen Xicu Masok saioaren aurkezpenean.

Orain dela 13 urte taularatu zuen katalanez lehen aldiz, eta taularatzten den aldiro ikusle asko izaten dituela

esan zuen Masok: “Testu ikaragarria da, irakurketa asko dituena. Helduentzat izan arren, bikote asko etorri da seme-alabekin obra ikustera”.

Heldutasunera iristeaz, inozentzia galtzeaz eta haur zeneko beldurrak heldutasunean ere mantentzen zaizkiola azalduko du protagonistak.

Musika Jabier Muguruzak egin du eta Jose Ramon Soroizek berak ere abesti bat kantatzen du antzezlanean.

“SOMMER JAUNAREN ISTORIOA”

Noiz: Martxoak 8 larunbata, Sutegin, 20:00etan.

Zuzendaria: Xicu Maso.

Aktorea: Jose Ramon Soroiz.

Sarrera: Egunean bertan 12 euro.

Aurretik, 10 euro (Txirristran eta NOAUA!n). NOAUA!ko bazkideek, aldeztu aurretik erosita, 8 euro.



JOSE RAMON SOROIZ AKTOREA DA LARUNBATEKO ANTZERKI SAIOAREN PROTAGONISTA NAGUSI ETA BAKARRA.

INDEPENDENTZIA OIHUKATU !

EA
eusko
alkartasuna
herriarenahotsa
euskoalkartasuna.org

Aste Santuan Alemaniara, Mendeku Itxuak taldekoekin batera

Aste Santuetako oporraldian oraindik zer egin erabaki ez duenak Mendeku Itxuak musika taldekoek prestatu duten bidaiera joateko aukera du. Martxoaren 20tik 24ra bitartean, hiru kontzertu eskainiko dituzte Alemanian. Autobusa antolatu dute bertara joateko. Izen ematea zabalik dago jada.

Gertu dira Aste Santuko oporrak. Bi aste baino ez, jai egunak dituenak behintzat planen bat egiteko. Garai horretarako herri mailan bada eskaintzarik, herriko musika talde bat Alemanian zehar egitekoa den lau eguneko biran parte hartzea adibidez. Mendeku Itxuak taldekoek "Astesanttour'08 on Deutschland" izenarekin bataiatu dute martxoaren 20tik 24ra antolatu duten bidaia. Tarte horretan, hiru kontzertu eskaintzekoak dira. Eta nahi duenak haiekin joan daiteke biran. Joan-etorria egiteko autobusa jarri baitute.

Bidaia, autobusez

Aipatu bezala, bost eguneko bidaia autobusez egin eta Mendeku Itxuak Alemanian eskainiko dituen hiru kontzertuak ikusteko aukera izango da. Gutxi gorabehera, bidaia 200 euroko kostua izango du. Bidaian joateko beharrezkoa da, 18 urte beteta izatea. Autobusean izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 616 482 521. Bertan norbere izen abizenak eta harremanetarako telefono zenbaki



200 EUROREN TRUKE, BIRA AUTOBUSEAN EGITEKO AUKERA DAGO.

bat utzi behar dira. Behar beste lagunek izena emango ez balute, bidaia bertan behera gera liteke. Kasu horretan, erabakiaren berri emateko antolatzaileak autobusean joatekoak direnekin hartu emanetan jarriko dira.

Bira, egunez egun

MARTXOAK 20, OSTEGUNA
Usurbil-Pirmasens (Alemania)

MARTXOAK 21, OSTIRALA
Pirmasens, kontzertua

MARTXOAK 22, LARUNBATA
Traer, kontzertua

MARTXOAK 23, IGANDEA
Frankfurt, kontzertua

MARTXOAK 24, ASTELEHENA
Frankfurt-Usurbil.

ARITZ GORRITI

Asteburu honetan Trapagaranen joko dute

Bigarren lana prestatzen burubelari dabilta Mendeku Itxuak taldekoak. Emanaldiak ez dituzte etengo ordea. Aste Santuko biraren aurretik, asteburu honetan Mendeku Itxuak Trapagaranen eskainiko du kontzertua. Despervicio taldea ere bertan izango da. Emanaldia ikustera joateko autobusa irtengo da, egun berean, Atxegaldeko autobus geltoki ondoko errotondatik. 18:30ean jarri dute hitzordua antolatzaileek. Itzulera ordua berriz, goizaldeko ordubietan. Bidaia autobusez egiteko Irrati edo Ardibeltz tabernatan izena eman behar da. 10-15 euro artean ordaindu behar da, beti ere bidaiari kopuruaren arabera.

**KALITATERO
EUSKAL
OKELA**

**ALKORTA
AUTOZERBITZUA**

**Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak**

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

**Usurbil
Autoak, S.C.L.**
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitzearra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79

Lehen aldiz, hautes-mahaiak izango dira Santuenean eta Aginagan

Orain arte, Santuenea eta Aginagako herritarrek kaxkora hurbildu behar zuten botoa ematera. Aurten, lehen aldiz gainera, bi hautesleku gehiago jarriko dira. Neurri honi esker, Santuenean eta Aginagan botoa bertatik bertara emateko aukera izango da.

Hautes-mahaletan izango diren herritarren izenak ere zehaztu dira. Duela hiru aste, ez ohiko eta premiazko udalbatza plenoa egin zen eta bertan zehaztu ziren hautes-mahaletan izango diren herritarrak.

Botoa emateko bost toki

Horretaz aparte, martxoaren 9an -Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan-, bederatzi mahai jarriko direla erabaki zen. Botoa emateko bost leku egokituko dira: Udarregi ikastola, Santueneko Zahar Egoitza, Kalezarreko Haur Eskola, Aginagako Herri Ikastetxea eta Zubietako Lanbide Eskola.

Emaitzak, noaua.com orrian

Martxoaren 9an, emaitzak ezagutu bezain pronto, gure webgunean jarriko ditugu ikusgai.



Guztira bederatzi mahai jarriko dira

KAXKOAN, HIRU MAHAI

Udarregi ikastolan
(Gernika Ibilbidea, 11)
001 Ataleko A mahaia (A-K abizenak)
001 Ataleko B mahaia (L-Z abizenak)
004 Ataleko U mahaia (A-Z abizenak)

SANTUENEAN, BI MAHAI

Gure Elkartea, Zahar Egoitzan
(Santuenea auzoa, 11)
002 Ataleko 01 A mahaia (A-K abizenak)
002 Ataleko 01 B mahaia (L-Z abizenak)

KALEZARREN, BI MAHAI

Haur Eskolan (Kalezar auzoa)
003 Ataleko 01 A mahaia (A-K abizenak)
003 Ataleko 01 B mahaia (L-Z abizenak)

AGINAGAN, MAHAI BAT

Herri Ikastetxean (Erriberako kalea, 7)
002 Ataleko 02 C mahaia (A-Z abizenak)

ZUBIETAN, MAHAI BAT

Lanbide Eskolan (Zubieta auzoa 9)
003 Ataleko 02 C mahaia (A-Z abizenak)

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Arliztitxo 8, behea · 943 363 348 · 609 888 021

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186

 **txirriStra**

KONTSERBUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak **TABERNA**

Heapaindegia eta Solarium-a
Ioli Lizarralde

Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik.
Zubiaurrenea, 5B ☎ 943 361 971

Abstentzioaren aldeko murala

Aurreko igandean, Usurbilgo Ezker Abertzaleak ekitaldia egin zuen Dema plazan. Martxoaren 9an euren aukera independentzia izango dela adierazi zuten, "hau da abstentzioa".

Euskal Herrian azken urteotan gertatzen ari den eskubide urraketaekin kezka azaldu zen Ezker Abertzalea. Jendaurrean egindako adierazpenen arabera, "azken hilabeteetan nozitzen ari garen eskubide bortxaketa eta defizit demokratikoak gure historiaren garai beltzenak gogorarazten dizkigute: Frankoren diktadura, Burgosko prozesua, GAL, Intxaurrendoko torturak, alderdien ilegalizazioak, debekuak, kolpeak, atxiloteta masiboak, euskal presoen sakabanaketa... Inkisizioa eta frankismoa itzuli egin dira gure artera, aldaketa politikoko garai hauetan proiektu independentista aukerarik gabe uzteko".

Euskal Herrian bizi den eskubide bortxaketa eta defizit demokratikoa oso larritzat jo zuten. Ezker Abertzalearen esanetan, "salbuespen egoera bizi dugu eta helburu argia du: Euskal Herria aldaketa politikoa atarian dagoen honetan, euskal independentismoarekin amaitzea".

Ezker Abertzalearen ustez, hauteskunde antidemokratikoenak izango dira



EZKER ABERTZALEAK MURAL BAT IPINI ETA ABSTENTZIOA ESKATZEKO EKITALDIA EGIN ZUEN AURREKO IGANDEAN.

martxoaren 9koak: "salbuespen egoera batean emango diren hauteskundeak dira, eta horregatik ez dugu parte hartuko. Uste dugu herri honek ezetz, stop esan behar diola salbuespen egoera honi, eta planto egin behar duela aurrean dugun Estatu faxista honen aurrean. Herri gisa jarduteko garaia da, alderdi interes guztien gaintetik, herri gisa airtzeko ordua, herri honen behar eta interesen alde egiteko ordua". Eta hori defendatzeko abstentzioa izango da

Ezker Abertzaleak martxoaren 9an defendatuko duena: "inoiz baino altuago stop esateko, eta euskal herritarrok gure etorkizuna erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatzeko, eta herri honek behar duen aldaketa politikoa bizkortzeko. Asko daukagu jokoan. Eta martxoaren 9an gure aukera independentzia izango da. Hau da, abstentzioa", aldarrikatu zuten abstentzioaren aldeko muralaren ondoan egindako agerraldian.

Jose Ramon Beloki: "Ahulen eskubideak sendo defendatzen dituen EAJ dut gustuko"

EAJk ekitaldi politikoa egin zuen Aurreko asteburuan Irungo Ficoban. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak ETari eta Madrilerara begiratzeari uzteko eskatu zien herritarrei: "Utz dezagun ETari eta Madrilerara begiratzeari, aurrean itxaropenaren atea irekitzeko aukera dugu, gure etorkizuna erabakitzeko atea, eta ez badugu lortzen, ez da ETaren, Rajoyren edo Zapateroren errua izango. Errua gurea, euskal herritarrona izango da,

gure esku baitago", nabarmendu zuen Ibarretxek.

Lorea Leanizbarrutia Senaturako zerrendagaiak adierazi zuen badela Madrilen indarra izateko garaia, Euskal Herria aske izan dadin.

Jose Ramon Beloki Gipuzkoako hautagaiak, aldiz, EAJrentzat gustuko duen proiektua azaldu zuen: "Ahulen eskubideak sendo defendatzen dituen EAJ dut gustuko. Ez dugu atzerapausorik eman behar".



EAJ-KO KIDEAK, FICOBAN ESKAINITAKO EKITALDIAN.

Bigarrenenez erasotua izan da EAren egoitza

Astebeteko epean, Eusko Alkartasunak Puntapax kalean duen egoitza bi aldiz erasotua izan da. Lehen eraso gertatu eta bi egunera, Eusko Alkartasunak moziobat aurkeztu zuen otsailaren 26ko udalbatza plenoan. Gertaera salatu eta beste alderdien babesa jasotzeko asmoz aurkeztu zen mozioa. Baina "Xabier Mikel Errekondo alkateak ukatu egin zuen gaia eztabaidatu eta bozkatzea, nahiz eta beste alderdi guztiek behin eta berriz eskatu", dio Eusko Alkartasunak NOAUA!ra igorritako balorazioan.

EAK aurkeztu zuen moziok dioenez, antzeko eraso "ez da lehen aldian gertatzen dela. Udal hauteskundeetan, 2007ko maiatzean, eraso politiko berdina jasan zuen. Geroztik hilabeteetan zehar talde politiko honen ekimena baldintzatua egon zen, peritajeak, seguruak, konponketak, eta abar burutu bitartean.

Berriro errepikatu den eraso honek hauteskundeak baldintzatu nahi ditu, beldurra zabaldu nahi du herritargoan, herri giroa nahasi nahi du.

Egoera honen eta beste herrietan gertatzen diren antzekoen aurrean herritarrek ezin dira ixilik geratu, gauza hauek ez dago erdibiderik, abstentzioak ez du balio. Ados zaude edo ez zaude".

EAK aurkeztu zuen moziok lau puntu

hauek biltzen ditu:

- Usurbilgo Udalak erasotua izan den Eusko Alkartasuna alderdi politikoari bere elkartasuna adierazten dio.

- Elkartzeko eskubidearen aurka, partehartze politiko eta demokratikoaren aurka burutu den eraso faxista hau gaitzesten du.

- Hauteskunde garaia demokratizazio garaia dira, partehartze politiko garaia, herritargoaren garaia; horrenbestez, Udal honek, herritarrei, bakoitzak bere erara, bere ideia politikoekin, beti ere era baketsu batean parte hartu dezala eskatzen die, lotsarik gabe, beldurrik gabe.

- Moziok honen onarpena eta edukia berri komunikabide eta bandoen bidez jakinaraziko zaie herritarrei".

Udalbatza plenoan bertan udal idazkariak adierazi zuenez, moziok hain zuzen ere aurkeztu (moziok, aztertuak izateko, plenoa egin baino 72 ordu lehenago aurkeztu behar omen dira). Aurkeztutako idatzian, gainera, EAK ez omen zuen premiazotasuna adierazi.

EAE-ANVTik moziok aztertzeko arazorik ez zutela baino plenoko gai zerrendan ez zegoela gogorarazi zen. EAK gertakaria aztertzeko premiazotasuna adierazi zuen. Gainerako alderdiek EAri elkartasuna adierazi eta gaiak hitz egin beharra azpimarratu zuten. Azkenean,



EGOITZAREN KRISTALA HAUSTEN SAIATU DIRA BEHIN BAINO GEHIAGOTAN.

bozkatu gabe geratu zen moziok.

Pleno horren ondoren, ostiral gauean bigarren eraso bat jasan zuen EAren egoitzak, kristala beste bi tokitan piztatu. EAK adierazi duenez, "tristeza da eraso politiko baten aurrean herritoko agintari nagusiak ezikusiarrena egitea. Astebete pasa ondoren pleno berezi batera ez deitzea. Hitz egin ez eta beste alderdiei hitz egiten utzi ez".

Egoera tristeza eta kezkarria

Tristeza gain, egoera kezkarria ere badela uste du EAK, "zeren bere jarrerarekin babesa ematen die horrelako ekintzak burutzen dituztenei; badakitelako hauek, alkateak ez duela inolako neurririk hartuko berriro ez gertatzeko: ez adierazpen publikorik, ez udaltzain babesik, ez Ertzaintzarekin elkarlanik. Hitz batean herritarrak defendatzen ez dituen alkateak dugu".

Jon Abril: "Aralarri bozka ematea Euskal Herriari hitza ematea da"

Aurreko igandean, kanpainako ekitaldi nagusia egin zuen Aralarrek Donostiako Miramar jauregian. Han izan ziren Usurbilgo bi zinegotziak, Lontxo Zubiria eta Joserra Furundarena. Miramarren elkartu ziren martxoaren 9ko hauteskundeetarako zerrendaburuak. Aralarren koordinatzaileorde Jon Abrilek "Aralarri bozka ematea Euskal Herriari hitza ematea" dela aldarrikatu zuen.

Bide beretik, Iñaki Irazabalbeitia Aralarren hautagai nagusiak boto horren

alde egiteko ausardia eskatu zuen: "Armairutik irten eta Aralarren alde bozkatu, ezker independente eta independentistaren alde, ezker zibil eta zabalaren alde, euskal boza Madrileramango dugu, egunerokotasunean eragiten dituzten politikak ezkerreko ikuspegi batetik defendatuko ditugu". Aurreko igandean Miramarren esandakoak dira. Iñaki Irazabalbeitia eta Jon Abril asteazken honetan Udarregin izan dira mitina eskaintzen.



ARALARREKO ORDEZKARIAK, MIRAMAR JAUREGIAN EGINDAKO EKITALDIAN.

Autobus Orduetgia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25	10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.10	12.30	12.35	12.45		11.45	11.55	12.05	>>	12.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.10	13.30	13.35	13.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	14.45	14.55	15.05	>>	15.30
14.10	14.30	14.35	14.45		15.45	15.55	16.05	>>	16.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	16.45	16.55	17.05	>>	17.30
15.10	15.30	15.35	15.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	19.45	19.55	20.05	>>	20.30
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	20.45	20.55	21.05	>>	21.30
18.10	18.30	18.35	18.45		21.15	21.25	21.35	>>	22.00
18.40	>>	19.05	19.15	19.25					
19.10	19.30	19.35	19.45						
19.40	>>	20.05	20.15	20.25					
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00					
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45					
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05					

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.38	22.45	22.54	23.09				

- Eguneko goardiako farmaziak**
- Martxoak 6, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Martxoak 7, ostirala**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
- Martxoak 8, larunbata**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*
- Martxoak 9, igandea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Martxoak 10, astelehena**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
- Martxoak 11, asteartea**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
- Martxoak 12, asteazkena**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
- Martxoak 13, osteguna**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte
- Martxoak 14, ostirala**
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
- Martxoak 15, larunbata**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*
- Martxoak 16, igandea**
Gil, Kale Nagusia 24, Lasarte
- GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ**
Correa Farmazia (22:00-09:00),
Perkaiztegi kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
*Usurbilen, soilik eguerdina arte

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Tren Orduetgia

Agenda !!

Martxoak 6 osteguna

"Kontsumitzailea sarean", ikastaroa KzGunean. 18:00-20:00. 943 36 14 12.

Martxoak 7 ostirala

- Pasaia Musikal Big Banden kontzertua. 19:30ean Sutegin. Sarrera: doan.
- 20:00etan ekitaldi politikoa frontoian, Ezker Abertzaleak deituta.

Martxoak 8 larunbata

- "Sommer jaunaren istorioa", antzerki saioa Sutegin, gaueko 20:00etan.
- Brtso-afaria Andatzpen, 21:30ean. Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo eta Jexux Mari Irazu bertsolariekin.

Martxoak 11 asteartea

"Sinadura elektronikoa", ikastaroa KzGunean. 18:00-20:00. 943 36 14 12.

Martxoak 12 asteazkena

IT txartela lortzeko azterketa eguna, KzGunean. 18:00-20:00. 943 36 14 12.

Martxoak 14 ostirala

"Xomorroen dantzak", 18:30ean Sutegin, Santueneko Antzerki Tailerreko bi taldeen eskutik (Inauterietarako prestatu zituzten dantzak eskainiko dituzte).

Aitzagako Mus Txapelketaren laugarren jardunaldia, Aginagan

Elkartez elkarteko ibilbidea osatzen ari da Aitzagako Mus Txapelketa. Hilabeteko lehen ostiralean izan ohi dira jardunaldiak eta datorena, laugarrena jada, Aginagako Zaharren Egoitzan jokatu da. Ostiral honetan, martxoak 7, gaueko 22:00etan ekingo zaio karta jokoari.

Muslari bikote bakoitzak 20 euroren truke parte har dezake txapelketan. Sariak ere ez dira nolanhikoak:

1. saria: bi arkume, mariskoa eta xanpaina.



MARTXOAK 7, 22:00ETAN, AGINAGAKO ZAHAR EGOITZAN.

2. saria: lau untxi, txangurroak eta xanpaina.

3. saria: bi untxi eta txangurroak.

4. saria: bi untxi eta txangurroak.

Sailkapena, oraingoz...

1. Justo-Markel 300 puntu
2. Joxema-Joxemi 260 puntu
3. Olano-Troia 240 puntu
4. Rufino-Angel 240 puntu

5. Joxelu-Iñaki 180 puntu
6. Joxe Ramon-Xanti 160 puntu
7. Urko-Xabier 140 puntu
8. Zapa-Pako 140 puntu

9. Ibon-Eneko 120 puntu
10. Juantxo-Aitor 100 puntu
11. Iban-Enrike 80 puntu
12. Agurtzane-Oihana 60 puntu
13. Joxe Ramon-Kontxi 60 puntu
14. Julen-Eneko 60 puntu
15. Iban-Unai 60 puntu
16. Joseba-Argitxu 60 puntu
17. Ixidro-Orbegozo 60 puntu

Saint Lery eski estaziora irteera

Martxoaren 10ean amaituko da izena emateko epea

Martxoaren 29an larunbata abiatuko da Usurbil FT taldeak Sain Lery (Frantzia) eski estaziora antolatu duen irteera. Goizez irtengo da autobusa eta igande arratsaldegauean bueltatuko da. Izena emateko epea martxoaren 10a arte luzatu da. Arratsaldeko 20:00etan amaituko da izena emateko epea. Oraindik badira plazak libre.

Prezioak 16-17 urtekoentzat: 113 euro (forfata, albergea, pistetako aseguru eta autobusa). 6 euro gehiago, eski materiala alokatzeko; eta 14 euro gehiago, snow materiala alokatzeko.

18 urte edo gehiago: 134 euro (forfata, albergea, pistetako aseguru eta

autobusa). 6 euro gehiago, eski materiala alokatzeko; eta 14 euro gehiago, snow materiala alokatzeko.

Izen-ematea, Txiribogan

Txiriboga tabernan daude izena emateko orriak. E-postaz egin daiteke izen-ematea, zubiharitzo@hotmail.com, eta Kutxako kontu korrontean ingresoa eginenez: 2101 0069 17 01235 88840.

Dudarik izanez gero, deitu lasai 653-72 80 59 telefono zenbakira.

Antolatzaileek esan digutenez, "ondo pasako dugu eta eguraldiak adierazten duen moduan, elurra izango dugu barra-barra! Neguko sasoirik onenean prestatu dugu irteera".

Urko Manterolarentzat Usurbil KEren zozketa

Aldian

Usurbil KE eskubaloitzaile taldeak zozketak egiten ditu bazkideen artean.

Azken zozketan, Urko Manterola izan da saritua. Juantxo Esnaola hara-kinak emandako arkumea irabazi du. Zorionak!



Asteburuko emaitzak

1. Territoriala Bertan behera
2. Territoriala Usurbil KE 23-Bergara 30
- Junior mut. Usurbil KE 23-Beasain 21
- Kadete mut. Atzeratu egin da partida
- Junior neska. Basauri 17-Usurbil KE 20
- Kadete neska. Basauri 12-Usurbil KE 13

ETXEBIZITZA

- Etxe bat bat alokatuko nuke norbaitekin. Usurbilen, 639370633 (Bixen)
- Terrenoa duen borda bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 664774024
- Terrenoa daukan baserri bat erosiko nuke. 664774024
- 75.000 metro karratuko terrenoa daukan baserri bat daukat salgai. Argi indarra telefonoa eta ura ditu. Agroturismo bat jartzeko oso egokia. 664774024.
- San Esteban kaleko 13 zenbakian 4. solairuko etxe bat daukat alokatzeko. Ez dauka igogailurik. Kontakuan jartzeko: 943362088
- Etxe bat alokatuko nuke norbaitekin Usurbilen, 639370633 (Bixen).
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukaldea, egongela eta trasteroa. Berritua. 53.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusia. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 33 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- 3 logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trasteroarekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen 33 metro karratutako garaje bat alokatzen dut. Sarrera handiarekin, biltegi moduan erabiltzeko egokia izan daiteke. Ura eta argia

- dauzka. 943373481.
- Kale Nagusian garaje itxi bat alokatzen dugu. Kotxeak sartzeko egokia, lokal moduan ez dugu alokatzen. 85 euro hilabetean. Interesatuak deitu 943361235 telefonora.
- Volswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Extra asko. Ruben. 609408401.
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajean egondakoa. 620625823.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Neska euskaldun (ahal bada) baten bila gabiltza ume bat zaintzeko astean bi goizetan eta zenbait arratsaldetan. 635715142.
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tardeka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxekolanak egiteko, umeak edo pertsona helduak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. Esperientziduna, informeak dauzka. Interesatuak deitu 943834895 / 650814429
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldean lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 675 657 780.

- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibiltateak. 679742413.
- Portalak eta eskailera garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jateke batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak zaintzeko. 618434990.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Antzerki txikia egitera etorriko zarenari. Ostegunean 20:30 elkartu gaitzake, baina, beste toki batean hitz egingo dugu. 943 36 03 21
- Otsailak 24an Igeldoko inguruan Pastor Aleman eme gazte bat galdu dugu. Bikote batek hartu zuela uste dugu. Txipa eta identifikazio plaka ere badauka. 943210330.
- Gizon edo emakume baten bila nabil, apirilean antzerki txiki bat egiteko. Interesatuak deitu 94360321 telefonora.
- Naranja eta gorri koloreko bi raketa galdu ditugu; bat handia, bestea txikia. Aurkitu baduzu, deitu: 692 837 951.
- Abenduaren 4an giltzak galdu nituen giltzako beltz batekin. Aurkitu badituzu: 685 72 56 81.
- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat alokatu nahi genuke herrian. 943360744.
- Kotxeko aulkitxo salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkia salgai. Aritz egurrez eginkoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Snow egiteko tabla bat fizioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bidcoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net

HILDAKOAK

Ascension Aldabe Iparragirre
Martxoaren 3an hil zen 79 urterekin, Atxegalden.



Zorionak Saray!
Martxoaren 8an urtetxo bat egi-ten dezu muxu handia, txiki!



Zorionak Aizpuruatarrak!
Nereak martxoaren 2an eta Unaiek hilaren 13an mendelaurdana, alajaiña! Ospatzeko prest bikote? 25 urte on!!! Koadrila.



Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan

BANDERA SALMENTA

PINTORE KALEA 7 · LASARTE-ORIA
943 376 424 · 943 376 165 (FAXI) kalkos@copiateriakalkos.com

Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA TEL. 36 61 97

UDARREGI IKASTOLA



- 2 urtetik 16 urtera bitarteko irakaskuntza arautua.
- Heziketa euskalduna: euskaraz ikasi eta bizi, eta Euskal Herriko Kultura eta herri-ekintzetan murgildua dagoena.
- Euskal Curriculumaren garapenez arduratua.
- Balore eta jarreraren lanketa, heziketaren ardatz gisa.
- Eleanitza: D eredia; ingelesa 4 urtetik aurrera; gaztelera, Lehen Hezkuntzaren 3. mailatik aurrera eta frantsesa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.
- Orientazio Departamendua: tutoretza eta banakako orientazioa. Orientazioa gurasoentzat.
- Heziketa Behar Bereziak dituztenentzat Laguntza-gela.
- Hizkuntzetarako irakasle espezialistak.
- Informazio eta Komunikazio-Teknologiak: Informatika, Internet eta Ikus-entzuezkoak.
- Garraioa auzo guztietara.
- Jangela: dieta orekatuak eta osatuak.
- Eskolaz kanpoko jarduerak: kirolak, bertso-gintza, dantza.



Matrikulatzeko epea
Martxoaren 31tik apirilaren 11ra



943 361 216

Udarregi Ikastola

Gernika ibilbidea, USURBIL

www.udarregi.com

www.udarregi.mundua.com

ABSTENTZIOA

Euskal
Herriak
independentzia

MARTXOAK 7

20:00tan ekitaldi politikoa herriko frontoian

